

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAKO  
ARRISKUEN KUDEAKETAREN ARLOKO ETIKA ETA JOKABIDE KODEA



## BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAKO ARRISKUEN KUDEAKETAREN ARLOKO ETIKA ETA JOKABIDE KODEA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren EBko 1303/2013 Erregelamenduaren 72.h) artikulua ezartzen duenez, *“Kudeaketa- eta kontrol-sistemek, 4. artikuluko 8. zenbakiarekin bat etorriz, honako hauek egin beharko dituzte: irregulartasunak –iruzurra barne– prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko beharrezkoa dena xedatu, eta bidegabe ordaindutako zenbatekoak berreskuratu, dagozkion berandutze-interesekin batera”*, bai eta erregelamendu beraren 125.4.c) artikuluan jasotako iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionalak galdatu ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak dagozkion prozedurek eta aplikatu beharreko araudiek osatutako eskumen-esparrua du, eta horiek osatzen dute Europako funtsen kudeaketaren eremuko arriskuen kudeaketaren arloko etika eta jokabide kodea.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak badu estrategia bat, horien esparruan garatutako jarduerari lotutako iruzurraren agerpena murrizteko neurriak biltzen dituena.

Etika eta jokabide kode hori, gainera, gai horren tratamendua arautzen duen esparru juridikoari lotuko zaio, eta honako arau hauetan zehazten da: Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko 2016/C 202/1 Tratua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren EB 1303/2013 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren EB 883/2013 Erregelamendua, 2013ko irailaren 11koa, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (IBEB) egindako ikerketei buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren EB 966/2012 Erregelamendua, 2012ko urriaren 25ekoa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa; Europar Batasunaren Tratatuaren K.3 artikuluan oinarrituta ezarritako Hitzarmena, Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzkoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 802/2014 Errege Dekretua, irailaren 19koa, honako hauek aldatzen duena: 390/1998 Errege Dekretua, martxoaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko Ordezkaritzaren eginkizunak



eta egitura organikoa arautzen dituen (Iruzuraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionala sortzea); 1/2015 Legea, otsailaren 6koa, Ogasun Publikoari, Sektore Publiko Instrumentalari eta Dirulaguntzei buruzkoa; 6/1989 Legea, martxoaren 13koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa; 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa; 5/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa, Interes Gatazka eta Bateraiezintasunei buruzkoa; Bizkaiko Foru Aldundiaren 128/2016 Foru Dekretua, uztailaren 26koa, zeinaren bidez onartzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Europako Funtsen kudeaketan arriskua tratatzearen eginkizun nagusia funtsen kudeaketa finantza-kudeaketa onaren printzipioaren pean ziurtatzea da, edozein motatako gorabeherak saihestuz; bai eta programa operatiboak erabat gauzatzea ere, onartuak izan diren baldintzetan, eta horiek betetzea arriskuan jar dezaketen faktore guztietan sakonduz.

Kodearen helburuetako bat da erakundearen barruan kultura bat irakastea, Europako funtsen kudeaketan iruzurrezko jarduera oro zapuztuko duena, eta jokabide arduratsu, etiko eta gardena sustatzea, desbideratze desegokirik gabe, eta funtsen erabileraren kontrol sakon zehatza egitea.

Etika eta jokabide kodearen arrazoia da EBren finantza-interesak babesteko finantza-kudeaketa ona egin behar dela, eta Europako Batzordeak eta estatu kideek erantzukizun partekatua izan behar dutela, iruzurraren aurkako borrokara eta ildo horretan kalteren bat eragin dezaketen legez kanpoko beste jarduera batzuetara bideratzen direla ziurtatzeko.

Europako Funtsen kudeaketari lotutako Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiek, baldin eta funts horiei lotutako edozein fasetan edo prozesutan parte hartzen badute, laguntza emango dute barne-kontrolleko sistema egokia dagoela ziurtatzeko, bakoitzak bere erantzukizun-eremuan, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ezartzeko behar den arreta bermatzeko.

### *Aplikazio-eremua*



Kodeko jokabide-balio eta -printzipio orokorrak Europako Funtsen kudeaketari lotutako Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei aplikatzen zaizkie, baldin eta funts horiei lotutako edozein fasetan edo prozesutan parte hartzen badute. Izan ere, Europako Funtsen kudeaketan arriskuaren agerpena nahiz Europako funtsen kudeaketaren esparruan garatutako jarduerari lotutako barne- eta kanpo-iruzurra murrizten saiatzen den beste neurri bat da.

### **Etika eta jokabide printzipioak**

Etika eta jokabide kodearen printzipioak honako hauek dira:

1. Aplikatu beharreko legeria betetzea
2. Baliabide publikoen erabilera egokia, onartutako programazioaren arabera
3. Zuzentasuna, profesionaltasuna eta zintzotasuna kudeaketan
4. Gardentasuna eta informazioaren erabilera ona
5. Tratu inpartziala eta diskriminaziorik gabea onuradunei eta laguntzen kudeatzaileei
6. Bizkaiko Foru Aldundiaren izen ona zaintzea.

Enplegatu publikoen betebeharrak Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 73. artikuluan jasotzen dira.

Gainera, kontuan hartu behar dira Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 53. artikuluan jasotako printzipio etikoak:

1. Enplegatu publikoek Konstituzioa eta antolamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.
2. Beren jardunak herritarren interes orokorrak betetzea izango du xede eta inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboak izango ditu oinarri, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiaratekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.
3. Beren jarduna leialtasunaren eta fede onaren printzipioen arabera izango da, bai lanean diharduteneko Administrazioarekin, baita nagusi, lankide, menpeko eta herritarrekin ere.



4. Beren jokabideak oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua izango du oinarri, eta saihestu egingo ditu era guztietako bereizkeriak, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla-eta sor litezkeenak.

5. Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo dira eta, lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai.

6. Lanpostu publikoaren betebeharrakiko interes-gatazka sortzeko arriskua dagoenean, ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute pertsona nahiz erakundeekin parte hartuko finantza-eragiketetan, ondarezko betebeharretan edo negozio juridikoetan.

7. Ez dute pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesede-traturik onartuko, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.

8. Eraginkortasun-, ekonomia- eta eragimen-printzipioen arabera jardungo dute; eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezzen zainduko dute.

9. Ezin dute, tartean bidezko arrazoirik izan gabe, administrazio-prozedurak edo tramiteak azkartzeko edo ebatzeko eraginik izan; are gutxiago, horrek pribilegioa badakar kargu publikoetako titularren alde edo beren familiartekoen edo inguru sozialaren alde, edo kaltea badakar hirugarren batzuen interesen aurka.

10. Arretaz beteko dituzte atazak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta, hala dagokienean, epe barruan ebatziko dituzte eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.

11. Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazio-printzipioari jarraituz beteko dituzte dagozkien eskurantzak, eta saihestu egingo dituzte, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoaren jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketen jokabide guztiak.

12. Sekretupean gordeko dituzte sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatu dute beren kargua dela-eta dakizkiten gaiei buruz; eta eskuratu duten informazio hori ezin



izango dute erabili ez beren mesederako, ez hirugarren batzuenarako, ezta interes publikoaren kalterako ere.

### Langileen betebeharrak

Enplegatu publikoen betebeharrak Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 73. artikuluan jasotzen dira.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren esparruko jokabide printzipioak 54. artikuluan jasotzen dira:

1. Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.

2. Lanpostuari dagozkion atazak betetzerakoan, zuhurtasunez eta arretatsu jokatu dute, eta ezarritako lanaldia eta ordutegia beteko dute.

3. Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionalei men egin behar diete, argi eta garbi antolamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, ikuskaritza-organo egokiei jakinarazi behar diete berehala horren berri.

4. Eskubidez jakin beharreko gaiak eta arloei buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta laguntza emango diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete ditzaten.

5. Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko norberaren edo hurbilekoen mesederako. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko eginbeharra ere izango dute.

6. Ez da abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik onartuko, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoari kalte egin gabe.

7. Dokumentuen ziurtasuna eta iraupena bermatuko dituzte, agiri horiek ondorengo arduradunei eman eta eskualdatu ahal izateko.

8. Eguneratuta izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.

9. Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.

10. Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jarriko dituzte, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko, beren ustez



egoki diren proposamenak. Horretarako, enplegatu publikoek eta herritarrek egindako proposamenak jasotzeko lana zentralizatzeko eskumena emanda, egoki iritzitako instantzia sortzeko aurreikuspena egin ahal izango da, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko.

11. Herritarrari berak eskatutako hizkuntzan erantzungo zaiola bermatu behar dute, hizkuntza hori lurralde horretan ofiziala bada.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 52. artikulua araberak, hauek dira enplegatu publikoen betebeharrak:

Enplegatu publikoek arretaz bete beharko dituzte eman zaizkien zereginak eta interes orokorrak zaindu, betiere, Konstituzioari eta gainerako antolamendu juridikoari begiratuta eta haiei lotuta; printzipio hauek oinarri hartuta jardun beharko dute beti: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotetasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua; horietatik dira enplegatu publikoen jokabide-kodearen abiaburu, printzipio etikoak eta jokabide-printzipioak oinarri izanik.

### Interes-gatazka

Interes-gatazka egongo da baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiko langileek, Europako Funtsen kudeaketari lotuta daudenean eta horiekin zerikusia duen edozein fasetan edo prozesutan parte hartzen dutenean, beren jardueraren inpartzial eta objektiboa koloka jartzen badute, familia- edo afektibitate-arrazoiengatik, kideetasun politikoagatik, interes ekonomikoagatik edo beste edozein arrazoiengatik, batera finantzatutako jardueren onuradunekin.

Interes-gatazka bat sortzen da enplegatu publiko batek bere interes pribatuak bere betebeharrak profesionalen aurretik jartzeko aukera izan dezakeenean.

Arreta berezia jarriko da Europako funtsen kudeaketaren esparruan batera finantzatutako eragiketetan “kontratazio”-prozedurekin eta “laguntza publikoak emateko” prozedurekin zerikusia duten enplegatu publikoen interes-gatazkarik gerta ez dadin.



Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko agintariak eta langileak, baldin eta interes-gatazka eragin dezakeen arrazoiren bat badute, ez dute esku hartuko aurreko paragrafoan adierazitako prozeduretan.

**Etika eta jokabide kodearen hedapena**

Etika eta jokabide kodearen eraginkortasuna bermatze aldera, hedapen handia emango zaio Europako Funtsen kudeaketari lotutako Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztien artean, baldin eta horiei lotutako edozein fasetan edo prozesutan parte hartzen badute.

Aurretik adierazitakoa alde batera utzi gabe, Bizkaiko Foru Aldundiaren bitarteko erakundearen webgunearen bidez eta egokitzat jotzen diren beste bide batzuetatik ere zabalduko da, bai eta organo kudeatzaileei, kontratuen esleipendunei, laguntzen onuradun diren erakundeei edo Europako funtsen kudeaketaren esparruan Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jartzen den beste edozein subjekturi ere.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Europako Funtsen kudeaketan arriskuak ebaluatzeko taldeak aldian-aldian berrikusi eta eguneratuko du edukia, eta egokitzat jotzen diren aldaketak edo egokitzapenak egingo dira.

Dokumentu honen edukia Bizkaiko Foru Aldundiaren Europako Funtsen kudeaketan arriskuak ebaluatzeko taldean prestatu da.

Bilbo, 2019ko otsailaren 8a